



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UHOLDEEN ZIOZKO LARRIALDI PLAN BEREZIAREN ALDAKETAK

Euskal Autonomia Erkidegoko Uholdeen Ziozko Larrialdi Plan Berezia, Gobernu Kontseiluaren 2015eko urtarrilaren 13ko Erabakiaren bidez onartutakoa, aldatu da eta honela geratu da:

Lehenengoa. 1. ataleko (Sarrera) 1.2 puntuan (Oinarrizko eginkizunak) azken gidoi bat gehitu da, honela idatzita:

“Desgaitasuna duten pertsonen eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuei asistentzia egokia bermatzea”.

Bigarrena. 1. ataleko (Sarrera) 1.3 puntuan (Lege- eta erregelamendu-esparrua), Estatuko legediari buruzko B) hizkian, azken gidoi bat gehitu da, honela idatzita:

“PCI/1283/2019 Agindua, abenduaren 27koa, Ministro Kontseiluaren 2019ko abenduaren 20ko Erabakia argitaratzen duena; erabaki horren bidez, babes zibileko plangintzaren oinarrizko jarraibideak eta babes zibileko Estatuko planak aldatzen dira, larrialdiak gertatzen direnean desgaitasuna duten pertsonen eta egoera bereziki ahulean dauden taldeei eskaintzen zaien arreta hobetzeko xedez”

Hirugarrena. 4. ataleko (Planaren egitura eta antolamendua) 4.1 puntuan (Planaren zuzendaria) j) hizkia aldatu da eta honela idatzi da:

“j) Larrialdian zehar, hedabide sozialen bitartez zein Planaren Zuzendaritzak eskura dituen baliabideen bitartez, herritarrei emango zaien informazioa zehaztea eta koordinatzea; informazio hori desgaitasuna duten pertsonentzat eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuentzat irisgarria eta ulergarria izango dela bermatzeko”.

Laugarrena. 4. ataleko (Planaren egitura eta antolamendua) 4.4 puntuan (Informazio-kabinetea) azken eginkizun bat gehitu da, honela idatzita:



“Informazioa, desgaitasuna duten pertsonentzat eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuentzat irisgarria eta ulergarria izan dadin, formatu egokien eta beharrezko mekanismoen bidez ematen dela bermatzea”.

Bosgarrena. 4.7 ataleko (Ekintza-taldeak) 4.7.1 puntuan (Esku hartze, salbamendu eta erreskateko taldea) oinarrizko eginkizunen hirugarren gidoia “Beste taldeekin lankidetzan aritzea, herritarrak babesteko neurriak hartzeko garaian” aldatu da, eta honela idatzi da:

“Beste taldeekin lankidetzan aritzea, herritarrak babesteko neurriak hartzeko garaian, eta desgaitasuna daukaten pertsoneri eta zaugarritasun-egoeran dauden kolektiboari asistentzia egokia bermatzea”.

Seigarrena. 4.7 ataleko (Ekintza-taldeak) 4.7.2 puntuan (Segurtasun-taldea), oinarrizko eginkizunen laugarren gidoia “Herritarrei oharrak eta informazioa helarazten laguntzea” aldatu da eta honela idatzi da:

“Herritarrei oharrak eta informazioa helarazten laguntzea eta, aldi berean, informazioa, desgaitasuna duten pertsonentzat eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuentzat irisgarria eta ulergarria izan dadin, formatu egokien eta beharrezko mekanismoen bidez ematen dela ziurtatzea”.

Horrez gain, beste gidoi bat gehitu da, honela idatzita:

“Desgaitasuna duten pertsoneri eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuei asistentzia egokia bermatzea”.

Zazpigarrena. 4.7 ataleko (Ekintza-taldeak) 4.7.3 puntuan (Osasun-taldea), eginkizunen barruan azken gidoi bat gehitu da, honela idatzita:

“Desgaitasuna duten pertsoneri eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuei asistentzia egokia bermatzea”.

Zortzigarrena. 4.7 ataleko (Ekintza-taldeak) 4.7.4 puntuan (Laguntza logistikoko taldea) e) hizkia gehitu da, honela idatzita:

“e) Desgaitasuna duten pertsonen beharrei erantzuteko beharrezkoak diren baliabideen mobilizazioa eta jarduera kudeatzea, eta horrela asistentzia eraginkorra ematen zaiela”.



bermatzea, irisgarritasun unibertsala bermatzen duten neurri eta baliabide espezifikoak kontuan hartuta”.

Bederatzigarrena. 5.1.2 ataleko (Ekintza operatiboak) 5.1.2 puntuan (Uholdeen ziozko larrialdietan pertsonak eta ondasunak babesteko neurriak) testua aldatu da eta honela idatzi da:

“Babes-neurritzat hartzen dira Plan Berezi honetan ezarritako prozedura, jarduketa eta neurriak; horien helburua da larrialdiek herritarrengan eta kaltetutako guneetan esku hartzen ari diren langileengan eragiten dituzten ondorioak —berehalakoak eta geroagokoak— saihestu edo arintzea, bai eta komunitatearen oinarrizko ondasun eta zerbitzuetan eragindako ondorioak ere; eta desgaitasuna daukaten pertsonak eta zaugarritasun-egoeran dauden kolektiboak asistentzia egokia jasotzen dutela bermatzea”.

5.1.2.1 puntuan (Herritarrak babestea) amaierako paragrafo bat gehitu da, honela idatzita:

“Neurri horiek alderdi espezifikoak kontuan hartuko dituzte, desgaitasuna daukaten pertsonen eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuen asistentzia eta segurtasuna bermatzeko”.

5.1.2.2 puntuan (Laguntza eta sorospena emateko neurriak) amaierako paragrafo bat gehitu da, honela idatzita:

“Neurri horiek alderdi espezifikoak kontuan hartuko dituzte, desgaitasuna daukaten pertsonen eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuen asistentzia eta segurtasuna bermatzeko”.

Hamargarrena. 5. ataleko (Operatibotasuna) 5.4. puntuan (Jakinarazpenak) bigarren paragrafo berri bat gehitu da, honela idatzita:

“Desgaitasuna duten pertsonen beharrei erantzungo dieten informazio- eta komunikazio-prozedurak erabili behar dira; horrela asistentzia eraginkorra ematen zaiela bermatzeko, beti ere irisgarritasun unibertsala bermatzen duten neurri eta baliabide espezifikoak kontuan hartuta. Abisuak eta informazioa desgaitasuna duten pertsonentzat eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuentzat irigarriak eta ulergarriak izan behar dira; eta horretarako formatu egokiak eta



beharrezkoak diren mekanismoak erabili beharko dira. Desgaitasuna duten biktimei edo biktimaren senideei informatu behar zaienean, egin beharreko egokitzapenak egingo dira eta, hala badagokio, langile espezializatuen laguntzarekin”.

Horrez gain, 5. ataleko (Operatibotasuna) 5.4 puntuan (Jakinarazpenak) hirugarren paragrafoa ere aldatu da eta honela idatzi da:

“Eraginpeko edo esku hartzera deitutako agintariei helarazitako jakinarazpenez gain, fase eta egoera guztien berri eman behar zaie herritarrei, zerbitzuei eta erakundeei, baldin eta kalteak jasan baditzakete edo haien laguntza beharrezkoa bada gertakaria kudeatzeko. Informazioa irisgarria eta ulergarria izan behar da desgaitasuna duten pertsonentzat eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuentzat. Horrek guztiak hainbat helburu ditu: arreta- eta zaintza-egoera eragitea, arriskua sortzen edo sor dezaketen faktoreak kontrolatzeko; prestaketa-lanak egitea, erantzun-denborak murrizteko eta azkar esku hartzeko; eta adi egotea, informazio berria jasotzeko eta arriskuari edo gertaera katastrofikoari aurre egiteko babes-neurriak hartzeko”.

Hamaikagarrena. 7. ataleko (Uholdeen aurrean jarduteko toki- eta foru-eremuko planak) 7.1 atalean (Udalaren eta foru aldundiaren jarduteko planaren xedea eta oinarritzko eginkizunak) amaierako paragrafo bat gehitu da, honela idatzita:

“Antolaketan zein jarduketa-prozeduretan, desgaitasuna daukaten pertsonen eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuen beharrak kontuan hartu behar dira”.

Hamabigarrena. 9.2 ataleko (Ezarpena) 9.2.2 puntuan (Planarekin zerikusirik duten zerbitzuetako langileen prestakuntza. Simulazioak) hirugarren paragrafo berri bat gehitu da, honela idatzita:

“Larrialdietan esku-hartzeko zerbitzuek berariazko prestakuntza ere jaso beharko dute desgaitasuna daukaten pertsonak eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuk artatzeko, ager daitezkeen ezaugarri eta behar bereziak kontuan hartuta”.

Azken paragrafoa ere aldatu da eta honela idatzi da:

“Prestakuntza finkatzeko, ariketak eta simulazioak (partzialak edo orokorrak) egingo dira, ezarritako ereduaren eraginkortasuna, langileen prestakuntza eta baliabideen eskuragarritasuna egiaztatzeko xedez. Horietan egiaztatu beharko da desgaitasuna daukaten pertsonen eta zaugarritasun-egoeran dauden kolektiboetarako asistentzia egokia ematen zaiela”.



Hamahirugarrena. 9.2 ataleko (Ezarpena) 9.2.3 puntuan (Uholdeen Ziozko Plan Bereziaren berri biztanleei ematea) azken gidoi bat gehitu da, honela idatzita:

“Informazioak formatu egokia eta beharrezko mekanismoak erabili behar ditu, desgaitasuna duten pertsonentzat eta zaugarritasun-egoeran dauden beste kolektibo batzuentzat irisgarria eta ulergarria izateko”.

Hamalauugarrena. 9.3 ataleko (Mantentzea) 9.3.3 puntuan (Simulazioak) bigarren paragrafoa aldatu da eta honela idatzi da:

“Ebaluazio-irizpideak ezarri behar dira, hala nola, Ekintza-taldeek erantzuna emateko behar duten denbora, Planaren egiturak eratzekoak, mobilizatutakoak iristekoak eta abar...; baita desgaitasuna daukaten pertsonen eta zaugarritasun-egoeran dauden kolektiboentzako asistentzia egokia ematekoak ere”.